

Edukiz eta publizitatez
osatutako gehigarria



Ate guztiak zabalik

Hezkuntza eskaintza Aiaraldean

Hezkuntza Aiaraldean

Laudio herri hezitzaile bilakatzeko lehen urratsak eman dituzte

HEZKUNTZA TOPAKETA ANTOLATU ZUTEN MARTXOAN LAMUZA PARKEKO KASINOAN, OINHERRIREN "HERRI HEZITZAILEAREN FILOSOFIA" LAUDION NOLA APLIKATU DAITEKEEN PENTSATZEN HASTEKO. MAITE ASPIAZUK EMAN DIZKIGU EKIMENAREN ZERTZELADA NAGUSIAK.

Testua

Aitor Aspuru Saez

Hezkuntza topaketa antolatu zuen Udalak martxoan Lamuza parkeko Kasinoan, Oinherriren "herri hezitzailearen filosofia" Laudion nola aplikatu daitekeen pentsatzen hasteko.

Laudioko hezkuntza komunitateko hainbat ordezkari bildu ziren larunbat goizean Lamuza parkeko Kasinoan eginiko topaketan. Laudio Udalak sustatu zuen ekimena, eta Oinherriko kideak aritu ziren saioa bideratzen. Euskal Herriko sarea da Oinherri, hainbat hezkuntza eragile eta herri biltzen dituena, eta "herri hezitzaileak" sortzea du helburu.

Horretara bideratu zuten, hain zuzen, larunbateko zita: Laudio herri hezitzaile nola bilakatu daitekeen pentsatzera. "Goiz emanorra" izan zen, Maite Aspiazuren hitzetan. "Oso esparru ezberdinetako jendea bildu zen: hezkuntza formalekoa, ez-formalekoa, Uda-

"Oso esparru ezberdinetako jendea bildu zen: hezkuntza formalekoa, ez-formalekoa, Udalekoak..."

lekoak, herrigintzakoak... eta baikoitzak bere hezkuntzaren ertetik egin zuen ekarpena", azaldu du Oinherriko kideak.

Aspiazuk aurreratu duenez, Laudio Hekuntza Kontseilu bat eratzea izango litzateke hurrengo urratsa, "herri mailako hezkuntza proiektu partekatua adosten hasteko".



HEZKUNTZAREN BIDAIA GUREKIN HASI NAHI?

ORDUTEGI
ETA EGUTEGI
ZABALA
JAI EGUNETAN
BAKARRIK ITXITA

MATRIKULA
ZABALIK
URTE OSOAN ZEHAR

AMAURRE
Txiki

KRISTAU ESKOLA

www.amaurre.eus
info@amaurre.eus
Tfno. 945 393 544



AMAURRE IKASTETXEA
Dionisio Aldama, 16
01470 Amurrio
Araba

Hezkuntza Aiaraldean

KIRIKIÑO ATSEDEN TALDEAK BARATZE TAILERRA EGINGO DU APIRILAREN 14AN. MODU HORRETAN HASIERA EMANGO DIOTE SASOI BERRIARI LAUDIO-KO UDALEKO ORTU KOMUNITARIOETAN DUTEN LURSAILEAN. 2019AN EKIN

ZIOTEN PROIEKTUARI ETA 2021AZ GEROZTIK GARAPEN IZUGARRIA IZAN DU ISASI AUZOAN GARATUTAKO BASOA EGITASMOARI ESKER; BARATZA IKUS-PEGI INTEGRALAGOAN TXERTATUZ.

Udaberriaren etorrerarekin batera Baratze Tailerra antolatu du Kirikiñok

Testua

Aimar Gutierrez Bidarte

Udaberriaren etorrerarekin batera, Kirikiñoko baratzean buru-belarri hasiko dira tailerrek egiten. "Igande goiz honetan egingo dugu lehendabiziko Baratze Tailerra. Orian baratzean dauden produktuak jaso, eta lurra prestatzeari ekingo diogu".

Apirilaren 14an 11:00etan elkartuko dira Laudioko Udalen ortu komunitarioetako lursailean. Sasoi berri honetan baratzean landatuko dituzten produktuak zeintzuk izango diren erabakitzeko baliatuko dute hitzordua. "Marrubi batzuk ere landatuko ditugu, ureztatu, negutegia pixkat txukundu...". Informazio gehiago nahi duen oro Kirikiño Atsedeen Taldeko kideekin jar daiteke harremanetan zuzenean, 688726665 WhatsApp zenba-

kira idatzita. 2019ko martxoaren 27an abiatu zuen Kirikiñok Baratza Proiektua. Hasiera batean elikadurararekin lotuako proiektua zen: "Haurrekin, gazteekin eta orokorrean adin guztiko pertsonekin hazia ereiten den momentutik hazi horren garapena gertutik jarraitzea izan da Baratza Proiektuaren xedea", azaldu dute Kirikiñoko kideek. Bien bitartean, eta egitasmoa osagarritzeko, orotariko ekinztak egin izan dituzte lursailean: *zianotipia* tailerrek, udalekuak, kontzertuak, zuku dastaketak, izarrak ikusteko tailerak... 2021eko martxoan luzapena gehitu zitzaion proiektuari: Basoa egitasmoa. Isasi auzoan errotutako proiektuak dimentsio integralagoa eskaini dio baratzeari orduetik, besteak beste, elikadura burujabetzaren arloan, bertako sukalde azpiegiturari esker.



La Milagrosa Ikastetxea



**MATRIKULA
ZABALIK**

2024an jaioak - 16 urtera arte



**INFORMA
ZAITEZ
946720701**



Zerbitzu ugari
D eredua



WWW.LAMILAGROSALAUDIO.EUS



LAUDIO
UDALA
AYUNTAMIENTO
DE LLODIO



KRISTAU
ESKOLA

Hezkuntza Aiaraldean

EGONALDIK EGITEN ARI DIRA AIARALDEAN, LANDA EREMUAREN BIZIBERRITZEAZ ZEIN NERABE ETA GAZTEEN AHALDUNTZEAZ HAUSNARTZEKO ETA HORRI LOTUTAKO PROIEKTUAK GARATZEKO. BELGIKATIK ETA ITALIATIK ETORRITAKO GAZTEAK AIARALDEKO

GAZTEEKIN ELKARTU DIRA ETA LANDA EREMUA ETA ZONALDE ABANDONATUAK BIZIBERRITZEKO PROIEKTU DESBERDINEN INGURUAN HAUSNARTZEKO ETA ESKUALDEA EZAGUTZEKO EZAGUTZEKO AUKERA IZANGO DUTE FAKTORIAKO EGONALDIAN

Italiako, Aiaraldeko zein Bruselako gazteak elkarlanean jarri ditu Faktoriak, Erasmus+ programaren bidez

Testua

Aimar Gutierrez Bidarte

Landa eremuko biziberritzeak Europako txoko desberdinetako gazteak batu ditu azken astean Faktorian. Iaz Italian abiatutako egitasmoari segida emango diote, landa eremuko despopulazioari aurre egiteko proiektuak garatzeko xedearekin.

2022an bisita profesional bat egin zuen Aiaraldea Ekintzen Faktoriak Flandriara, bertako erralitate sozial eta kulturala ezagutzeko asmoz. Bertan garatutako lankidetzaren harreman batekin sortu da Erasmus+ programa hau: “Bereziki Italiako Alpeetan gertatzen ari zen populazio galera izugarriari irtenbide berritzaileak bilatzeko asmoarekin”.

Bide horretan, eskualdeko ordezkari bat bidaiatu egin zuen Italiako Aosta bailara aldera, bertako esperientziak gertutik ezagutzera. “Hogei pertsona elkartu ginen bertan, Belgikatik, Italiatik eta Aiaraldeatik etorriak”, azaldu dio komunikabideari egitasmoaren sustatzaileetako bat den Nerea Iglesiasek.

Bigarren fasea Aiaraldean

Italian Alpeetako lehenengo esperientzia horren bigarren fasea gauzatzen ari dira azken astean Aiaraldean. Guztira Belgika, Italia eta eskualdeko bederatzi lagun elkartu dira Faktorian garatzen ari diren esperientzian.

“Bakoitzak landa-eremuko biziberritzean eragiteko haien eremuan garatzen ari diren proiektu bana ekarri du —adierazi du Nerea Iglesiasek— Ertz ugari ditu proiektuak; izan ere, landa-eremuaren biziberritzeaz hausnartzeaz gain, jarrera sortzailea eta artearekiko atxikimendua ere landuko ditugu egun hauetan”. Gazteen ahalduntzea, eta to-



kian-toki errealtatea eraldatzeko tresnak eskaintzea ere bada Erasmus+ programaren helburua. “Orotariko proiektuak bildu ditugu. Italiar gazte batek, adibidez erreferentziazko musika jaialdi bat sortu nahi du, 200 biztanleko bere herrian. Belgikar gazte batek, aldiz, eraikin abandonatu bat birgaitu eta biziberritu nahi du. Badago mendi-gidaria den beste kide bat, mendi-irteera irisgarriak egiteko ametsarekin”, aipatu du Iglesiasek.

Horretarako Faktorian egiten ari diren lantegi desberdinez gain, eskualdeko errealtate desberdinak ezagutzeko parada ere izango dute. Besteak beste Laudioko KulturLab proiektua, Amurrioko Gaztetxea edota Aiarako Gazte Lekua bisitatuko dituzte. Eskualdeko alor anitzeta-

ko gazteekin ere solasaldiak izan dituzte.

Parte hartzaileak pozik

Ikasteko eta disfrutatzeke goz daude Erasmus+ proiektuan parte hartzen ari diren gazteak. “Gisa honetako nire lehenengo esperientzia da honakoa, guztiz berria da niretzat —azaldu du Giacomo Galfaré Iglesiasek, Rittan herri italiarreko gazteak— Faktoria espazioa bereziki ikusgarria iruditu zait”. Antzeko iritzia du Maria Arnolfo kideak ere; “gustatuko litzaidake horrelako proiektu bat garatzea nire herrian, Piedmont herrian”. “Kultur sorkuntzak esparru desberdinetan duen erabilerak erakarrira etorri gara; hala nola eremu abandonatuen biziberritzean” aipatu dute Belgikatik etorritako gazteek.



**Maria Arnolfo
Giacomo Galfré**

Italia

“Hemen ikusitakoa gure herrian aplikatu nahiko genuke”



**Jolien Pittoors
Warre Van Ingelghem**

Belgika

“Kultur sorkuntza tresna eraldatzailea izan daiteke”

0 urtetik Batxilergora arte ikuspegi integrala euskaraz

ETORKIZUNARI BEGIRA, IKASTURTE ERA-BAKIGARRIAK DIRA BATXILERGOKO BI URTEAK.

Zer da zuretzat Laudio Ikastola?

MARKEL PIKATZA URRESOLA (Amurrio): Amurrioko Aresketa ikastolatik duela bi urte etorri nintzen, DBH egin ondoren, Batxilergoa egitera. Bi urte hauetan, talde polita bat osatu dugu, giro kooperatibo eta osasuntsu batekin. Laudio Ikastolak, sortzen dituen ekintzekin zein euskararen erabilerari ematen dion garrantziarekin oso pozik sentitzen naiz.

NAHIE UNTZAGA UGALDE (Laudio): Oroimena dudanetik nago ikastolan, nire kasuan, ikastolarekiko dudan harremana oso berezia da. Bizitza osoan harekiko elkartuta sentitu naiz, hasiera-hasieratik nire familia guztiak ikastolaren alde egin zuelako. Nire aitite ikastolan lanean aritu zen nire jaiotza-arte; ama, izeko, amama eta aitite betidanik bizi izan ziren ikastolan bertan, eta horregatik dut "etxe" sentsazio hori bertan nagoenean.

Batxilergoko ikasturte biak etorkizunari begira erabakigarriak dira. Zertan lagundu dizu Batxilergoak?

NUU: Ez dut gezurrik esango, Batxilergoa zaila da. Urte hauek batzuetan ez dizute erakutsiko zer duzun gustuko, baina gustatzen ez zaizuna ikusteko ere baliagarriak izan daitezke. Beraz, nik Batxilergoa bai ala ez zalantza edukiko banu, baietz esango nuke nahiz eta hasieran zaila izan. Ni oso eroso sentitzen naiz eta nire Nahie txikiak hemen gelditzeko eskatzen dit, baina badakit heldutasuna ez dela lineala, eta gorabehera askok osatuko dutela.

Ikastolak orientazio azoka, hitzaldi eta bisita ugari eskaintzen ditu. Horiek kasuan-kasu oso lagungarriak izan daitezke. Batxilergoaren ostean zer egin nahi dugun argitzen eta erakusten dute, datorren urteotan ahalik eta eroso senti gaitezten.

MPU: Bi ikasturte hauek egiteak, nahiz eta momentu batzuetan oso gogorrak izan, atek irekitzen dizkizu zuk nahi dituzun ikasketak gauzatu ahal izateko.



Zer esango zenioke Ikastolara etorri-ez etorri zalantza duen ikasle edo familia bati?

MPU: Nik, nire esperientzian, hasieran beldur pixka bat neukan Laudio Ikastolara etortzeko, ez nekielako zer aurkituko nuen, baina, beldur horiek joan egin ziren harriera oso ona jaso ondoren, bai irakasle, zein beste ikasleekin partetik ere. Horrez gain, hezkuntza euskaldun eta talde izaera ona duen Ikastola batera joan nahi baduzue, Laudio Ikastola gomendatzen dizuet.

NUU: Niri ikastolak gauza asko eskaini dizkit. Aisia aipatzea gustatuko litzaidake, ikastolan eskolaz kanpoko ekintza ugari eskaintzen baitira, kirolak, artea eta kultura sustatuz. Hauen artean euskal dantzak, zeinetan nire ama hezitzailea izan den bere gaztarotik eta ni 3 urte nituela hasi nintzen ikastolarekin dantzatzen.

Momentu honetan euskal dantzetan monitoretza ikastaroko praktikak egiten ari naiz, izan ere, ikastolak titulazio hauek lortzeko aukera eskaintzen da. Nire usitez ikastola bat ezberdintzen duena euskararekiko duten konpromisoa da, euskara bultzatzeko mugimendu ugari egiten direlako eta oso parte-hartzaileak garelako kultura sustatzean.

Arrazoi horientatik guztiengatik, nik ikastolara etortzera gonbidatzen zaituztet, baita ere elkartasun hori senti dezazuen.

LAUDIO TXIKI ETA HAUR HEZKUNTZAKO KANPO ESPAZIOETAN, JOLASTOKIAN, ETENGABEKO ERALDAKETAN MURGILDUTA GAUDE. BERRIKUNTZA HAU EZINEZKOA LITZATEKE IKASTOLAKO KOMUNITATEA OSATZEN DUTEN IKASLE, FAMILIA ETA LANGILEEN EKARPENIK GABE. ORAINGOAN ERE, AUZOLANEAN ARI(TU) GARA TXOKOAK BIZIBERRITZEN, GUNE BERRIAK SORTZEN.



Zer suposatzen dizu zuri zure seme-alabak-bilobek erabiliko dituzten kanpo espazioen biziberritzean parte hartzeak?

Alberto Laguna Larrazabal (guraso ohia eta egun HHko umeen aitite): Auzolanean parte hartzeko proposamena jaso nuenean baietz esan nuen gogotsu, guraso eta hezitzaileekin batera lanean aritzeko eta harremanetan egoteko aukera paregabea baita. Oso gustura ibili ginen guztien artean jolastoki inklusibo honen proiektuan, gainera, umeen gozamenarako izango denez, motibazioa handiagoa da.

Sandra Castañeda Ruiz (HH4 eta LH2ko umeen ama): Haurren hezkuntzaren eta garapenaren parte garelako pentsatzea gustatzen zaigu gurasooi, eta, bide batez gure lan pixka batek ilusioz bete ditzake haurren jolasorduk.

Nola ikusten duzu Ikastolaren kanpo espazioenerabilera? Haurrengan zein onura izan ditzake naturaz gozatzeak?

SCR: Pandemia egoeran Ikastolak apostu handia egin zuen kanpoko espazioak zabaltzen eta gune berriak erabiltzen. Guri ideia paregabea iruditu zitzaigun momentu horretan eta asko gustatzen zaigu ideia horrekin jarraitzea, haurrek naturarekin daukaten hartu-emanak asko laguntzen baitu euren garapenean.

ALL: Ideia eta proiektua Ikastolako guraso arkitekto batek proposatutakoa da eta jolastokian eman diren aldaketa hauek umeengan oso onuragarriak izango dira. Proiektu berri hau ikuspuntu pedagogiko batetik abiatzen da eta umeek naturarekiko duten harremana gehiago bermatzeko balioko du (erabili ditugun materialak: ura eta egurraren presentzia handiagoa), jolas interaktiboak lurrean margotuta... Hau guztia beste kideekin elkarrekin jolasteko oso aproposa iruditzen zait.

IKASTOLAN MATRIKULA ZABALIK

BATXILERGOA eta 2023an eta 2024an jaiotakoentzat




Zatoz gure Ikastola ezagutzera!

94 672 67 37

matrikula@laudioikastola.eus



Hezkuntza Aiaraldean



Zabalik dago Batxilergoko aurrematrikulazio epea Aiaraldeko ikastetxe publiko zein itunpekoetan

Testua

Aimar Gutierrez Bidarte

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak iragan apirilaren 8an zabaldu zuen Batxilergoan, matrikulatzeko epea, apirilaren 19ra arte zabalik egongo dena. Ikastetxe publiko zein pribatuetan matrikulazio epea berdina da.

Aurreko urteetan bezala bide egongo dira; aurrez aurreko matrikulazioa edo Internet bidezkoa. Bigarrenetik jotzen duten ikasleek Hezkuntza Sailaren web orrian aurkituko dute hori egiteko bidea. Behin matrikulazio epea amai-

Lanbide Heziketako zentroetan matrikulatzeko epea maiatzan abiatuko dute

tuta, maiatzaren 7an aurkeztuko dira behin-behineko zerrendak, maiatzaren 14a baino lehenago aurkeztu ahaliko dira erreklamazioak. Behin betiko zerrendak maiatzaren 21ean egingo dituzte publiko. Behin hori eginda, ohiko matrikula-aldia abiatuko du Hezkuntza Sailak. Aurten goan ekainaren 17tik uztailearen 2ra luzatuko da, biak barne. Lanbide Heziketako zentroetan matrikulatzeko epea maiatzan abiatuko dute. Ohikoan bezala, hezkuntza eskaintza zabala aurkituko dute ikasle eta familiek Aiaraldean, zentro publiko zein itunpekoetan.

Aintzinako Andra Mari Ikastetxea

“Antzinako Andra Maria ikastetxean aukerak sortzen ditugu”

1. Aniztasuna eta irekitasuna: Ikastetxe honetan, aniztasuna da araua. Hemen, ikasleak jatorri, sinesmen eta kultura desberdinetako ikaskideekin erlazionatzen dira. Bizitza ez da uniformea, eta ikastetxe honek errealitate hori islatzen du. Haur Hezkuntzatik hasi eta batxilergora arte, pasilloetan barreak, jakin-mina eta ikas-kuntza partekatua daude.

2. Ingurumenarekiko konpromisoa: Ikastetxea harro dago bere konpromiso ekologikoarekin. Ikasleek birziklatzeko, berdeguneak zaintzeko eta ingurumen-kontzientziazioko proiektuetan parte hartzen dute. Nork daki? Agian hurrengo ingeniari informatikoa ere planetaren defendatzaile sutsua izango da

3. Pertsona ikuspegia: Hemen, ez zara zenbaki bat baka-

rrik zerrenda batean. Irakasleek beren ikasleak, ametsak eta erronkak ezagutzen dituzte. Ikastetxea ikasle bakoitzaren ongizate emozionalaz eta hazkunde pertsonalaz ardurtzen da.

Ez da matematika edo historia ikastea bakarrik; hiritar kontziente eta enpatikoa izaten ikastea da.

4. Hezkuntza Berrikuntza:

Ikasgelak bizirik daude teknologiarekin eta sormenarekin. Irakasleek metodologia berriak aztertzen dituzte, pentsamendu kritikoa eta arazoaren konponketa sustatuz. Informatikako lanbide-heziketako goi-mailako zikloak erakusten du ikastetxe hori abangoardian dagoela.

Etorkizun bikaina

Laburbilduz, Urduña-Or-

duñan Josefinoen Antzianko Andra Maria ikastetxea duzu, aukera-itsasargia. Haurtzaindegiko lehen urratsetatik batxilergoko ikasgelako eztabaida sutsuetaraino, hemen sortzen da etorkizuna.

Beraz, hezkuntza pasioarekin, aniztasunarekin eta berrikuntzarekin nahasten den leku bat bilatzen baduzu, zentro hau zure helmuga da.

Aintzinako Andra Maria Ikastetxea

AUKERAK
SORTZEN



• Haur hezkuntza
D ereduaren eta dohainik

• DBH

• LH Informatikako Goi Mailako Zikloa
Aintzinako Aplikazioak
Garatzeko Teknikaria

• Lehen hezkuntza

• Batxilergoa

**MATRIKULA ZABALIK
BATXILERGOA, apirilak 8 - 19**

**LANBIDE HEZIKETA,
maiatzak 6 - 24**

IFORMAZIOA: orientacion@colegiojosefinos.com · 945 384 830



“Laudio Institutuko irakasleek autonomia handia ematen ziguten, eta horrek heldutasun handia ematen dizu”

JULEN ARRIAGA (OROZKO, 2005) FISIKA ETA INGENIERITZA ELEKTRONIKOKO GRADU BIKOITZA IKASTEN ARI DA. LAUDIO INSTITUTUKO IKASLE OHIA DA, ETA HEZKUNTZA SAILAK BANATZEN DUEN BATXILERGOKO SARI BEREZIA ESKURATU ZUEN IAZ.

Zer ikasten duzu eta zergatik aukeratu zenuen arlo hori?

Fisika eta Ingenieritza Elektronikoko Gradu Bikoitzeko lehenengo urtean nago. Zientzia eta matematika txikitatik gustatu izan zaizkit eta, dibulgatzaile zientifiko batzuk ikusi ondoren, Fisika ikasi nahi nuela erabaki nuen. Gradu bikoitzean sartzeara erronkatzat hartu nuen sartzeko gutxieneko nota altua zelako, baina orain Ingenieritza Elektronikoa ere gustoko dudala ikusi dut.

Institutuko garaian bizitako esperientzietatik, zein da gehien baloratzen duzuna? Zergatik?

Gehien gustatu izan zaidana irakasleekin izan dudana da. Gogoratzen dut USErako errepaso klaseetan, errepasatzeaz gain, gure beldurrei buruz eta gure ikasteko plangintzari buruz hitz egiten genitela irakasleei eta haiek aholkuak ematen zizkiguten irakasle eta lagun gisa.

Esperientzia edo ikasketa horiek, zure ustez, oinarri egokiak izan dira unibertsitateko ikasketak aurrera eramateko?

Nik institutuan izan dudana sententzia da irakasleek orokorrean autonomia handia uzten zigutela ikasteko eta horrek heldutasuna ematen dizu. Helduta-

sun hau beharrezkoa da, unibertsitatean inork ez dizulako esango ea etxerako lanak egin dituzun edo klasera joan zaren, baina zuk zeuk jakin behar duzu garrantzitsua dela. Edukien inguruan, Batxilergoan zehar lantzen diren eduki gehienak ahazten zaizkizu unibertsitatean helduz zaren, gai gehiegi lantzen direlako denbora gutxian eta ez dago denborarik edukiak barnertatzeko. Hala ere, hori hezkuntza sistemaren arazoa da, ez ikastetxeena.

“Heldutasun beharrezkoa da, unibertsitatean inork ez dizulako esango ea etxerako lanak egin dituzun edo klasera joan zaren”

Alde handia sumatu zenuen institututik fakultatera pasatzean? Zergatik?

Ezberdintasun ikaragarria dago unibertsitate eta institutuaren artean. Alde batetik, zure

betiko lagunak atzean uzten dituzu, erlazio berriak egin behar dituzu, institutukoekin konparatuta klaseak erraldoiak dira (80 pertsona inguru gaude nire klasean). Eta, bestalde, lantzen diren edukiak oso ezberdinak ez diren arren, ulermen maila askoz handiagoa behar delako. Esan bezala, ez du balio bakarrik formulak aplikatzen jakitea, formulak nondik atera diren jakin behar da.

Zeintzuk dira zure asmoak lan munduari begira?

Oraindik bost urte falta zaizkit gradu bikoitza bukatzeko. Beraz, ez daukat oso argi zer egingo dudana. Hala ere, ikerketan aritzea gustatuko litzaidake betidanik izan dudalako gizarte laguntzeko grina.

Zein aholku emango zenieke orain Batxilergoan ikasten daudenei edo ikasiko dutenei?

Betikoa, gogor lan egin dezatela, saia daitezela gauzak egunean eramaten eta ez dezatela dena azkenengo momenturako utzi. Ikasteko ohitura hartzen baduzu, bizitza osorako lagungarria izango zaizu. Batxilergo osoan zehar USEren mamuak beldurtzen gaitu, baina USEko ariketak klasekoen antzekoak edo erreza- goak izan ohi dira. Ez dago zertan kezkatu.



LAUDIO
BHI
.eus

2024-2025 AURREMATRIKULA

Apirilaren 8tik 19ra (ONLINE EDO IKASTETXEAN)



BATXILERGOAK

- > Zientzia eta Teknologia
- > Giza eta gizarte zientziak
- > Arte plastikoak

ERDI MAILAKO ZIKLOA: Estetika eta edergintza
ONINARRIZKO LANBIDE HEZIKETA: Ileapainketa

**Ate irekiak
APIRILAK 15,
18:00etan**

**Helmuga
euskarri
ibilbidea
helburu!**

Babestutako edukia

MODA BERTIA

FAKTORIAN



APIRILA



12, barikua
17:00-20:00 - Faktorian
FORMAZIO JARDUNALDIAK/
**EKONOMIA SOZIAL
ERALDATZAILEA
AIARALDEAN**
1^o SAIOA
DOAN
#EKONOMIASOZIALERALDATZAILEA



13, zapatua
20:00 - Faktorian
KONTZERTUA/
AUDIENCE
BAZKIDEAK 8€ / EZ-BAZKIDEAK 10€
#MUSIKA



14, domeka
11:00-13:00 - Faktorian
KOKORIKO/
**0-3 URTEKO
HAURRENTZAKO
JOLAS LIBRERAKO
ESPAZIOA**
BAZKIDEAK 5€ / EZ-BAZKIDEAK 6€
#JOLASLIBREA
#0-3ESPAZIOA



19, barikua
20:00 - Faktorian
BERBALDIA/
**BIONEUROEMOZIOAN
MURGILDUZ
AZIBAR ZARATEREKIN**
DOAN
#KOMUNITATEA
#OSASUNA



20, zapatua
11:30 - Faktorian
TXANGOA/
**BARRASKILOEN
EGUNA**
LARRAÑORA IBILBIDE
DINAMIZATUA ETA JOLASAK
DOAN
#FAMILIAK
#BIZITZAJOLASA

MAIATZA



03, barikua
17:00-20:00 - Faktorian
FORMAZIO JARDUNALDIAK/
**EKONOMIA SOZIAL
ERALDATZAILEA
AIARALDEAN**
2^o SAIOA
DOAN
#EKONOMIASOZIALERALDATZAILEA



03, barikua
20:00 - Faktorian
BERBALDIA/
**AIARALDEKO
MENDIAK BIZIRIK**
DOAN
#EKONOMIASOZIALERALDATZAILEA
#INGURUMENA



10, barikua
20:00 - Faktorian
KONTZERTUA/
IGOR ARZUAGA
BAZKIDEAK 12€ / EZ-BAZKIDEAK 15€
#MUSIKA



11, zapatua
10:00-13:00 - Faktorian
JARDUNALDIA/
**ENERGIA
KOMUNITATEAK
AIARALDEAN**
DOAN
#ENERGIKOMUNITATEAK



11, zapatua
18:00 - Faktorian
GAZTE GAZTEAK/
**NERABEENTZAKO
IHES GELA**
DOAN
#AISIALDIA



12, domeka
11:00-13:00 - Faktorian
KOKORIKO/
**0-3 URTEKO
HAURRENTZAKO
JOLAS LIBRERAKO
ESPAZIOA**
BAZKIDEAK 5€ / EZ-BAZKIDEAK 6€
#JOLASLIBREA
#0-3ESPAZIOA



17, barikua
20:00 - Faktorian
BERBALDIA/
**HABITATUTAKO
PABILIOI BAT**
BEÑAT SARATXAGA
ARKITEKTOAREKIN
DOAN
#ARKITEKTURA



18, zapatua
11:30-13:30 - Faktorian
TAILERRA/
ZAINITZA FAKTORIA
DOAN
#FEMINISMOA
#BOHORBOSALDIAK



18, zapatua
16:30etik aurrera - Faktorian
KOKORIKO/
**HAURREN EGUNA
ETA GAUA**
DOAN
#FAMILIAK
#JOLASLIBREA
#BIZITZAJOLASA



24, barikua
18:00 - Faktorian
AURKEZPEN TERTULIA/
**KULTURARTEKO-
TASUN FAMILIAK**
DOAN
#KULTURARTEKOTASUNA



25, zapatua
Egueditik aurrera
**FAKTORIAREN
URTEURRENA**
KONTZERTUA/
ANARI
#BIZITZEOFAKTORIA
#AMESTEKO FAKTORIA




31, barikua
17:00-20:00 - Faktorian
FORMAZIO JARDUNALDIAK/
**EKONOMIA SOZIAL
ERALDATZAILEA
AIARALDEAN**
3^o SAIOA
DOAN
#EKONOMIASOZIALERALDATZAILEA



01, zapatua
11:00-14:00 - Faktorian
JARDUNALDIAK/
**FEMINISMOA
AIARALDEAN**
DOAN
#FEMINISMOA



08, zapatua
10:00 - Faktorian
TAILERRA/
**SAGARRA HAMAIKA
ERATAN**
OLATXUKO LABOREAK
BAZKIDEAK 10€ / EZ-BAZKIDEAK 15€
#BELIKADURABURUJARETZA



08, zapatua
18:00 - Faktorian
GAZTE GAZTEAK/
**NERABEENTZAKO
MAHAI JOLASEN
TOPAKETA**
DOAN
#AISIALDIA



09, domeka
11:00-13:00 - Faktorian
KOKORIKO/
**0-3 URTEKO
HAURRENTZAKO
JOLAS LIBRERAKO
ESPAZIOA**
BAZKIDEAK 5€ / EZ-BAZKIDEAK 6€
#JOLASLIBREA
#0-3ESPAZIOA



14, barikua
17:00-20:00 - Faktorian
FORMAZIO JARDUNALDIAK/
**EKONOMIA SOZIAL
ERALDATZAILEA
AIARALDEAN**
4^o SAIOA
DOAN
#EKONOMIASOZIALERALDATZAILEA



14, barikua
19:00 - Faktorian
BERBALDIA/
**FEMINISMOA,
KULTURGINTZA ETA
EUSKALGINTZA
ELKARREN ESKUTIK**
DOAN
#FEMINISMOA
#BOHORBOSALDIAK



15, zapatua
11:00 - Faktorian
ESPERIMENTAZIO SAIOA/
**FAKTORIA KOLOREZ
BETETZEKO**
BAZKIDEAK 5€ / EZ-BAZKIDEAK 6€
#FAMILIAK
#ESPERIMENTAZIOA
#BIZITZAJOLASA



18, martitzena
17:30 - Faktorian
EMANALDIA/
**IKASTOLAKO
ANTZERKI TALDEA**
DOAN
#ANTZERKIA
#IKASTOLAKOANTZERKITALDEA



19, eguaztena
17:30 - Faktorian
EMANALDIA/
**IKASTOLAKO
ANTZERKI TALDEA**
DOAN
#ANTZERKIA
#IKASTOLAKOANTZERKITALDEA



20, eguena
19:00 - Faktorian
TAILERRA/
**NOLA ESKUHARTU
INDARKERIA
MATXISTAREN
KASUAK UDALEKU
EDO AISIALDI
GUNEETAN**
DOAN
#FEMINISMOA
#BOHORBOSALDIAK

EKAINA



01, zapatua
11:00-14:00 - Faktorian
JARDUNALDIAK/
**FEMINISMOA
AIARALDEAN**
DOAN
#FEMINISMOA

**+PROGRAMAZIO
GEHIAGO!**

WEBGUNEAN/SARE
SOZIALETAN EKITALDI
BERRIEN JARRAIPENA
EGITEKO AUKERA DUZU.



www.faktoria.eus